

# LOR<LDIA ESKOLA



2025-2026  
IKASTURTEKO ESKAINTZA



ANTOLATZAILEA

# LOR<LDIA

EUSKAL KULTURA GAUR

LAGUNTZAILEA

**urtxintxa**  
*eskola*

BABESLEA

 **Bizkaia**  
*foru aldundia*  
*diputación foral*



# AURKIBIDEA

1. LORALDIA 04
2. LORALDIA ESKOLA 06
3. IZANDAKO ESPERIENTZIAK 09
4. 2025-2026 ESKAINTZA 10
5. LORALDIAK JARTZEN DUENA 18
6. ESKOLAK JARTZEN DUENA 19
7. BALDINTZAK 20
8. KONTAKTUA 21

# LOR<LDIA

## EUSKAL KULTURA GAUR

### Zer da?

Euskal kultura garaikidea sustatzeko eta ikustarazteko egitasmoa.

### Helburuak

1. Euskaraz egiten den kultura sustatu.
2. Egungo kultura, modernoa eta aitzindaria, ezagutarazi.
3. Euskaldunak ez direnak, gure kultur eremuetara hurbildu.
4. Emakumearen sormena erdigunean jarri.
5. Etorkizuneko sortzaile eta ikusleak lortu.
6. Gure ekoizpenak eskolara hurbildu, pedagogia eta didaktikaren bidetik.
7. Kultur arloaren lanbide profesionala sustatu eta indartu.

### Izaera juridikoa

Loraldia Koop. Elk. Txikia, IFZ F72501323, Helbidea: Agoitz Plaza 1, 48015 Bilbao

2018tik Lehentasunezko Jarduera bezala aitortua Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik.

## LAN-ARLOAK

### LOR<LDIA FESTIBALA

Bilbon, udaberriaren eztandaekin batera, euskaraz sortutako proposamenik berritzaileenak plazaratzen dituen festibala.

### LOR<LDIA ESKOLA

Hezkuntza arautuan euskal kulturaren transmisioa lantzen dugu proiektu ezberdinen bitartez.

### LOR<LDIA DIGITALA

Loraldiaren arlo digitala, euskarazko sormen digitalak sustatzeko.

### LOR<LDIA PRODUKZIOAK

Euskarazko sormena sustatzen duten produkzioak sortzen ditugu, Euskal Herrian zehar zabaltzeko asmoarekin.

### LOR<LDIA PLAZA

Festibalaren arrakasta modeloa eta esperientzia Euskal Herriko beste herri batzuetara eramaten dugu.

### LOR<LDIA GAZTEA

Publiko gazteari zuzendutako ekimenak: transmisioa landu, sormena piztu, prestakuntza, eta plaza eskaintzea

## LOR<ZAINAK

Loraldiaren zaleen komunitatea.



# LOR<LDIA

## ESKOLA

### Zer da?

Gaurko haur eta gazteek, biharko gure kulturaren errealitatea eratuko dute. Beraz, gure ahalegina, eduki erakargarri, integratzaile eta ospetsuak eskainiz, haurrak eta gazteak, **euskarazko kulturaren unibertsora hurbiltzean** dago.

Gure asmoa euskaraz garatutako kultura garaikidea transmititzea eta ezagutzera ematea da; eskola adineko pertsonen artean, haur hezkuntzatik batxilergorarte, eskolako orduetan, hezkuntza **curriculumean txertatuta**.

**Transmisioaren ekarpenari** beste batzuk ere eranstean zaizkio, esaterako:

- Euskararen erabilera sustatzea.
- Sormena suspertzea.
- Euskal kulturarekiko atxikimendua lantzea.
- Adierazpena (ahozkoa eta gorputzaren bidez) lantzea.
- Kultur diziplinak ezagutu eta praktikatzea.
- Elkarlana lantzea.
- Kulturartekotasuna eta aniztasuna lantzea.



LOR<LDIA ESKOLA

## METODOLOGIA

### SORMENAK PROPOSATUZ BURUTZEN DUGU TRANSMISIOA

**Garrantzitsuena prozesua eta esperientzia dira; ez horrenbeste amaierako emaitza.**

Egitasmo bakoitzak dinamikaren lagungarri den gida pedagogiko didaktiko bat dauka lan prozesua errazteko, talde bakoitzaren arabera moldagarria dena. Hala ere, haur eta gazteentzat interesa pizten dituzten esparru eta praktikak kontuan hartuz proposatzen dira saioak.

Saio dinamikoak, sormenezkoak, inprobisaziozkoak, emozioz betetakoak, asanblearioak... guztizko inplikazioa eskatzen eta eragiten dituztenak.

Gida pedagogikoa esku artean, haur eta gazteak, sormen prozesu baten parte izango dira, hezitzaileak edo irakasleak emandako jarraibideak jarraituz, tresna desberdinak erabiliz,

Sormen bidean, proiektuaren arabera, sortzaile eta ekoizpen profesional batzuen laguntza jaso dezakete.

# LANTZEN DIREN GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK (GHI)

**GIH4 Kalitatezko hezkuntza:** partehartzean oinarritutako metodologia aktiboen bidez ikasleak ingurune hurbileko kultur eragileekin batera elkarlanean jartzen dira egoera eta arazo errealak irakaskuntza formalera ekarriz zein inguruneko gertaerei kultur somenaren bidez erantzunez.

**GIH5 Genero berdintasuna:** egitasmo guztian genero perspektibarekin lan egiten da.

**GIH 8 Lan duina eta hazkunde ekonomikoa:** euskal kultur sorkuntzaren sektorea sustatzeko, ikustarazteko eta balio handitzeko jaiotako egitasmoa da.

**GIH 11 Hiri eta komunitate iraunkorrak:** tokiko kultur sektorean modu iraunkorrean arituz eta kultur eta natur ondarea babestuz.

**GIH 12 Ekoizpen eta kontsumo arduratsua:** kultur eta ondarea babesteak, kultur-kontsumo iraunkorra egitea eskatzen du.

**GIH 17 Helburuak lortzeko aliantzak:** egitasmoak dituen helburuak ahalik eta indar gehien izan dezan, arlo publiko zein pribatuko kanpo-eragileekin egina dago.

**GIH 17+1 Hizkuntza eta aniztasunaren bermea:** euskara eta euskal kultura bultzatzea du xede nagusia.



“ Euskal kultura sustatzea gure proiektu pedagogikoaren parte garrantzitsuenetakoa bat da, eta haurretan esperientzia hori bermatu ahal izatea, guztiz aberasgarria”

Idoia Zuazo Andra Mari Ikastolatik



“ Sorkuntza bat hasieratik eta bukaerara ere inoiz dogu, eta hori itzela da. Izugarri izen da lana, baina merezi izen dau”

Rakel Etxeandia Gernikako San Fidel Ikastolatik

## IZANDAKO ESPERIENTZIAK

Kulturan, esperimentazioan eta sormenean aritzeak, prozesu baten osotasunean elkarlanean ibiltzeak, sorkuntza baten parte aktibo izateak, gure barrena ukitu egiten du.

Orain arte, Loraldia Eskolaren parte izan diren, eskola, ikasle, irakasle, guraso, arduradun, laguntzaile eta oro har, komunitate osoaren emozioetan eragin baikorra izan du.

### Hauek dira orain arteko datu nabarmenenak:

- 9 ikasturtetako esperientzia daukagu
- 29 ikastetxe ezberdinetan izan gara
- 58 proiektu garatu ditugu
- 2.611 ume eta gazteek parte hartu dute
- 46 ikuskizun eta erakusketak egin dira publikoari zuzenduak

# LORALDIA

## ESKOLA

### 2025-2026

### IKASTURTERAKO ESKAINTZA

2016.urtean, transmisioari eragiteko asmoz, marrazten hasi ginen artelanaren sorkuntzak aurrera darrai, eta lan horretan, aurten ere, kolektiboki, esperimentazioz, elkar eraginez, eta bereziki sormenetik, Loraldia Eskolak, hurrengo egitasmo proposamenak aurkezten ditu.

**2025-2026 ikasturterako 7 egitasmo ezberdin proposatzen ditugu.** Hartzaile talde ezberdinetara zuzentzen da hauetako bakoitza, eta helburu ezberdinak betetzea du helburu.

**Eskola bakoitzean** gauzatzerakoan, zentro horrek dituen behar zehatz, eta ikuspuntu zein egoerara **moldatzeko saiakera** egiten dugu.



TTIPIA

**HELBURUA:** 5-8 urteko haurrak, gaur egungo 4 artista plastikoren izenak ezagutzea, eta beraiek jarduten duten adierazpideak, ezagutzea eta zuzenean sortzea

**HARTZAILEAK:** Haur Hezkuntzako 5 urteko haurrak eta LH1 eta LH2ko ikasleak

**IRAUPENA:** Hilabete eta erdi bat. 6 saioetan emana (asteen ordu bat)

**EDUKIAK:** Egun jardunean aritzen diren 4 artista plastikoek lana ezagutuko dute eta, beraien adierazpideak praktikan jarri (margoa, eskultura, marrazketa eta argazkigintza). Haurrek erakusketa bat antolatzen ikasiko dute baita

**METODOLOGIA:** Okela Sormen Lantegiak burututako Check point-etik abiatuta (sarea sortzeko ekimena), ezagututako artista plastikoak dira landuko direnak. Ikus-entzunezko labor eta dinamika artistiko batez osatutako 4 saio desberdinetan. Artistek umeei zuzenduriko bideoez baliatuz, haurrek, artista plastiko hauen lana ezagutuko dute; baita praktikan jarri ere.

**SORMEN LANA:** Margolana, eskultura, marrazketa eta argazkiak sortuko dituzte, erakusketa batean osatuko dena.

**PREZIOA:** 1.800€



# LOREKOLORE

**HELBURUA:** Gure kultur aniztasunaren emari oparoa ezagutaraztea du helburu.

**HARTZAILEAK:** Lehen Hezkuntzako 6-10 urte bitarteko ikasleak (LH1, LH2, LH3 eta LH4) eta beraien gurasoak.

**IRAUPENA:** 3 hilabete eta astean saio bat. Guztira 20 saio

**EDUKIAK:** Hilabetean kultur gai bat abiapuntu hartuz, egun haurrentzako egiten den gure kultur aniztasunaren transmisioa egingo dugu. Haurrentzako ikuskizunak (ipuin kontaketa ilustratuak, antzerkiak, musikalak eta zirkua), kantagintza, musika tresnak eta dantzak ezagutuz. Beti ere, gure kulturak beste kulturetatik jaso dituenak, beste kulturetatik dituen antzekotasunak, eta bihurtu den kultur anitz eta gaurkotua azalaraziz.

**METODOLOGIA:** Gure kulturaren emari diren eta haurren egunerokoaren parte diren sormen lan, kanta, musika doinu, dantzetaz baliatuz, sormen prozesua lorez-lore sortzen joango gara. Metodologia parte hartzailea, elkarlanekoa, komunikazio handikoa eta guztiz inklusiboa izango da. Haurren gurasoak ere inplikatzeko ditugu beraiek ere euskal kulturaren aniztasuna bultzatzeko.

**SORMEN LANA:** Mural baten aurkezpena. Haurrek amestutako murala, artista batek egi bihurtuko du.

**PREZIOA:** 3.500€



## AIREAN

**HELBURUA:** Euskal musikaren transmisioan eragitea helburu. Beti ere, sormenetik eta sortuz.

**HARTZAILEAK:** Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleak: LH3 eta LH4

**IRAUPENA:** Hiruhilebetekoa. Hamabostero saio bat. Guztira 6 saio

**EDUKIAK:** 80. hamarkadan jarrita abiapuntua, gaur egunerarteko bidai musikal bat egingo dugu. Musika generoak, estiloak, artistak, kanta, modak; genero gehientsuenetan sortzen da euskaraz eta musikan. Beraientzat erakargarriak, errazak, ederrak izan daitezkeen ideiak proposatuz, beraien nahi eta kezkei lotutako testuak dituztenak, barregarriak, irudimentsuak, desberdinak eta motibatzaileenak aukeratuz egingo dugu transmisioa.

**METODOLOGIA:** Irrati saio eszenografia batean, hezitzailea kazetari lanetan, proposamen desberdinak egingo dizkio taldeari, transmisioa burutuz, eta aldi berean, elkarrizketa, hausnarketa, iritzi eta irrati saio dinamiko bat sortuz. Transmisioa eginda, kanten TOP LORALDIA zerrenda osatu beharko dute. Kanta irabazlearekin, taldea bitan banaturik, sormen faseari ekingo dio. Eskolan jarraikortasuna eskatzen duen egitasmoa da, irrati saio eta podcast-aren antolaketa lotzeko orduan.

**SORMEN LANA:** Top Loraldian irabazle irtendako kantaren inguruko podcast bat eta dantza bat sortu beharko dituzte. Grabazioa zuzenean eskolako beste ikasle batzuen aurrean grabatuko da eta familiei ere emailez bidaliko zaie.

**PREZIOA:** 1.800€



## 7 KANTU

**HELBURUA:** Euskal kantutegiaren ezagutzan, interpretazioan, eta sormenaren atzean dagoen munduan, dauden kantu, lur eta konexio anitzak transmititzeaz, eta interpretazio, sormen eta konexio berri eta gaurkotuak sortzean datza.

**HARTZAILEAK:** LH5, LH6 eta DBHko ikasle guztientzat.

**IRAUPENA:** ikasturte oso bat

**EDUKIAK:** Gure kantutegian eta, batez ere, gazteen belaunaldien artean hain ezagunak ez diren kanten transmisioan datza proiektua. Kantuen letra eta doinuak, bertsiio desberdinak eta abar ikasteaz gain, kantu hoiien testuinguruaz eta sinbologiaz arituko gara. Transmisioaren hariaren galtzearen eta egungo globalizazioaren arteko loturaz hausnartzeko helburua ere badu.

**METODOLOGIA:** Kantuak abesten ikasteko, eta beraien testuinguruaz ezagutzak jasotzeko, horretan jantzia den profesional batekin musika saioak izango dituzte bi hilabetetan zehar astean behin. Hori jasota, ikuskizuna edo sormen lana sortzeko, antzerki, zuzendaritza eta ekoizpen bati lotutako lan guztiei dagozkien saio praktiko puntualak burutuko dituzte.

**SORMEN LANA:** Kantuz eta kantuen interpretazioaz arduratuko den ikuskizun bat egikaritzea.

**PREZIOA:** 4.800 €



## LORE JOKOAK

**HELBURUA:** ikasleei, euskal kulturaren adierazpide artistiko gehientsuenak biltzen dituen Libertimendu edo Pastoral baten ezaguera transmititzea, eta berau sortzearen sormen prozesuaren osotasunean parte aktibo izatea.

**HARTZAILEAK:** LH6 eta DBH (1-4) ikasleei zuzendua.

**IRAUPENA:** Ikasturte osokoa.

**EDUKIAK:** Anton Abbadia, Lore jokoak eta Pastoral landuko dira edukiei dagokionez. Pastoral, euskal kulturaren adierazpide guztien batura lortzen duen ikuskizuna dela ikasiz. Euskal kultura garaikidean ezagunak diren hainbat artista, lan eta espazio ezagun eta esanguratsu aipatu gabe utzita.

**METODOLOGIA:** Unitate pedagogiko didaktiko bat bidelagun, edukien hausnarketa kooperatiboak, jolas bisualen bidezko ezagutzen azterketa, antzerki tailer intentsiboak, musika eskolak, zuzeneko ipuin kontalariak, nortasun ezagutzarako arte plastikoen esperimentazio praktikak, inprobisazioak, irakurketa errezitatuak, erabaki kolektiboak, talde lana, elkarlana. Metodologi aktibo eta kooperatiboak pastoral gaurkotu bat sortzearen bidean.

**SORMEN LANA:** Pastoral gaurkotu bat sortu beharko dute, herriko kultur espazioan taularatuko dena.

**PREZIOA:** 4.800€



# KAMARA SARTU!

**HELBURUA:** Gure kulturaren inguruko ikus-entzunezkoen baliatuz, eta berauek aztertuz, Euskal Herrian eta euskaraz, gaur egiten den kulturaren argazki orokor baten transmisioa bermatzea; trukean, gaurko kulturaren ikus-entzunezko bat sortuz

**HARTZAILEAK:** DBHko (1-4) eta Batxilergoko ikasleak.

**IRAUPENA:** 3 hilabete eta erdi eta astean saio bat, 15 saio guztira.

**EDUKIAK:** Euskal kultura garaikideaz dauden dokumental, saiakera audiobisualak, performanceak, albisteak, telesailak, bideoklipak, multimedia galeriak etabarrak ezagutzuz, ikertuz, ikuskatuz, gaur egungo eta beraien gertuko errealitatera moldatu beharko dute sorkuntza.

**METODOLOGIA:** Gaurko euskarazko kulturaren inguruko ikus-entzunezkoak aztertu, ikuskatu eta hausnartuko dituzte, modu ireki eta kritiko batean. Biltzen dituzten baliozko baliabideei esker, egungo eta beraiengandik gertu sentitzen duten kulturaren inguruko ikus-entzunezko bat sortuko dute; beti ere, modu kooperatiboa eta sortzailea, gailenduz.

**SORMEN LANA:** Gehienez, 5 minutuko iraupena izango duen ikus-entzunezko bat sortu beharko dute; baita ikuslego zabal baten aurrean egin beharreko aurkezpen publikoa ere.

**PREZIOA:** 2.500€





## LOREAK TAILERRETAN

**HELBURUA:** Ikasleei, bizipen-esperientzia batetik abiatuta, proiektu kolektibo ekintzaile bat sortzeko aukera ematea.

**HARTZAILEAK:** DBHko (1-4) eta Batxilergoko ikasleak.

**IRAUPENA:** 4 hilabete, iraila-abendua. 15 saio.

**EDUKIAK:** Tokiko 3 kultur sortzaile eta beraien obra/lana ezagutzeaz gain, euskal kultur esparruaren parte diren adierazpide hoi, marko orokor bat eraikiko dugu (sortzaileak, obrak, espazioak, sarea)

**METODOLOGIA:** Freinet pedagogo frantsesa ezagunaren “metodo naturala”-ren metodologia hartuko dugu oinarritzat. Zuzenean biziko duten tailerren ezagutzaren esperientziatik abiatuta (bide batez, auzo edo herriko beste espazio batzuk, gela bilakatuz); ikasle bakoitzari sortzen zaizkion motibazioetatik, praktikan oinarrituko da sormena. Sormena beraz, multidiziplinarra izango da.

**SORMEN LANA:** Proiektu kolektiboaren aurkezpena.

**PREZIOA:** 2.500 €

## LORALDIAK JARTZEN DUENA

### **Antolakuntza eta koordinazioa**

Hezkuntza zentro eta Loraldiaren arteko zubilana

Gida pedagogikoa diseinatzea

Gida pedagogikoaren materialak bideratzea

Gida pedagogikoaren erritmoak kontrolatzea

Parte hartuko duten kultur profesionalak koordianatzea eta ordaintzea

### **Dinamizazioa**

Saio guztietan dinamika gidatzea

Sormenean eta eszenaratzean laguntzea

### **Kanpoko profesionalak**

Sormen lanaren prozesuan zenbait kulturgile ezagun eta eskarmentu handikoak izango dira bidaide

### **Zabalkundea**

Transmisioa dugu helburu. Beraz, proiektu bakoitza ahalik eta gehien hedatuko dugu bitarteko ezberdinen bitartez: web gunea, sare sozialak...

## IKASTETXEAK JARTZEN DUENA

### **Espazio egokiak**

Ekintzak burutzeko behar diren espazioak

### **Arduraduna**

Eskolan proiektuaz arduratuko den pertsona/k.

Proiektuaren arrakastarako, Loraldiako orduaz gain, proiektuarekin zerikusia izan dezakeen bestelako irakasgairen bat erabiltzea komeni da saioetan landutakoa sakontzeko.

### **Materialak**

Ekintza garatzeko behar den materiala edo ekipamendua: proiektoreak, kartulinak, margoak...

### **Diru ekarpena**

Proiektu bakoitzean zehaztua

## BALDINTZAK

### **Gehiengo ikasle taldea**

Proiektu bakoitzak 25 ume izango ditu gehien. Kopuru hau gainditzen bada antolakuntza eta baldintza ekonomiko bereziak aplikatuko dira.

### **Publiko aurreko erakusketa edo emanaldiak**

Loraldia eta eskolaren artean adostuko da proiektu amaierako emanaldia edo ekintza zein modutan egin. Prezioan ez daude aurreikusita emanaldi horrek suposatu dezakeen kostuak.

### **Laguntzak**

Loraldia Eskola Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara sailak lagundutako ekimena da. Ekimenak bere logoa eramango du.

### **Kontratatua**

Zerbitzua baieztatzeko Loraldia eta ikastetxearen artean kontratu bat sinatu beharko da.

### **Ordainketa modua**

Kasu bakoitzari moldatu daiteke, baina printzipioz 4 hilabete baino gutxiagoko proiektuetan amaieran ordaindu beharko da eta urte guztiko proiektuetan kontratua sinatzerakoan %25 eta %75 amaitzerakoan.

**LOR<LDIA** EUSKAL KULTURA GAUR

## KONTAKTUA

Informazio gehiago:

[www.loraldia.eus/eskola/](http://www.loraldia.eus/eskola/)

Harremanetarako:

656 702 743

[kudeaketa@loraldia.eus](mailto:kudeaketa@loraldia.eus)

LORALDIA.EUS

